# Premio «FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU» 2004



CONVOCANTE:
**CONSEJO VASCO DEL MOVIMIENTO EUROPEO**

PARTICIPANTES:
**Autores de trabajos de investigación.**

TEMA:
**"Las incógnitas de la Ampliación: oportunidades y desafíos"**

DOTACIÓN:
**6.000 euros.**

FECHA LÍMITE DE PRESENTACIÓN:
**31 de marzo de 2004 a las 12 horas**

INFORMACIÓN:

**CONSEJO VASCO DEL MOVIMIENTO EUROPEO**
**Prado, 8 - 1º dcha.**
**01005 VITORIA-GASTEIZ**
**Teléfono: 945 12 35 38 • Fax: 945 12 35 39**
**Email: eurobask@eurobask.org**
**Web: www.eurobask.org**


EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO DEL MOVIMIENTO EUROPEO

## PREMIO «FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU» 2004

El principal objetivo del Consejo Vasco del Movimiento Europeo es impulsar la constitución de una Unión Europea federal respetuosa con la diversidad de pueblos existentes en su seno, e impulsar y profundizar en Euskadi las relaciones entre los diferentes pueblos, nacionalidades y regiones de Europa con vistas a la citada unidad europea.

Entre sus áreas de actuación destaca la promoción de la identidad europea y la sensibilización de la sociedad vasca respecto a los avances que se producen en la construcción europea.

### CONVOCATORIA

Para profundizar en ellas, el Consejo Vasco del Movimiento decidió en el año 2001, en que celebraba su 50 aniversario, crear un Premio de Investigación, con el nombre de "Francisco Javier de Landaburu", en recuerdo del que fue miembro de la primera Junta Directiva del Consejo Vasco creado en 1951 y destacado estudioso e intelectual de los temas europeos.

Este premio se dedica a promover los estudios y reflexiones sobre los aspectos de la construcción europea con mayor incidencia para Euskadi en el momento de su convocatoria.

La convocatoria incluye un Premio y un Accésit y queda fijado con periodicidad anual.

### OBJETIVOS

- Promover una reflexión en la sociedad vasca sobre aspectos de la actualidad europea con especial incidencia en Euskadi.
- Difundir los trabajos que se realizan sobre temas europeos con objeto de animar a los investigadores a continuar con su dedicación a la construcción europea.
- Contribuir a mantener vivo el debate sobre el futuro de la UE en la sociedad vasca, con objeto de estar preparados ante las grandes mutaciones que se producirán en el continente.
- Difundir la identidad y los fines del Consejo Vasco del Movimiento Europeo, y premiar a las investigaciones que contribuyan mejor al logro de sus objetivos.

## BASES

### 1.- PARTICIPANTES

Podrán concurrir al Premio tanto personas individuales como equipos de trabajo formados al efecto. En el supuesto de que se trate de grupos de trabajo, se acreditará convenientemente la persona que se responsabilice de la dirección del equipo de investigación. En futuras convocatorias, no podrán concurrir quienes hayan obtenido el Premio Francisco Javier de Landaburu en alguna de las anteriores ediciones, ni miembros de la Junta Directiva del Consejo Vasco del Movimiento Europeo y miembros del Jurado, bien a título individual o como miembros de equipos de trabajo.

### 2.- TRABAJOS

Los Premios serán otorgados a los mejores trabajos de carácter científico elaborados desde distintas ópticas de estudio e investigación, cuyo objeto esté directamente relacionado con los temas europeos.

El Jurado propondrá la adjudicación de los Premios aquellos trabajos que presenten una mayor calidad, destaquen por la originalidad de su planteamiento o supongan una inovación en el campo de investigación de su área respetiva.

Anualmente el Consejo concretará en sus bases los temas susceptibles de ser presentados al premio.

Los trabajos deberán ser inéditos y estarán escritos en euskera o en castellano, y presentarse por triplicado en papel y una copia en soporte informático.

La extensión minima del trabajo será de 50 páginas y la máxima de 75 páginas, a doble espacio y con cuerpo de letra 11. Al menos un quinto de la extensión del trabajo deberá hacer una proyección futura de la cuestión estudiada.

Los trabajos no se devolverán, salvo solicitud expresa en el momento de su presentación.

### 3.- DOTACIÓN ECONÓMICA Y PUBLICACIÓN

Se destina al primer y segundo Premio a los que se refiere la presente convocatoria la cantidad de 6.000 euros repartidos de la siguiente forma:
Primer premio: 4.000 euros.
Segundo premio: 2.000 euros.

A estas cantidades, se efectuarán las retenciones que, de conformidad con las disposiciones tributarias, fueran de aplicación.

Publicación: el Jurado aprobará la realización de un libro si estimara que alguno de los trabajos galardonados es merecedor de ser publicado. El Jurado podrá incluir también en la publicación otros trabajos presentados al Premio.

### 4.- TEMA: Las incógnitas de la Ampliación: oportunidades y desafíos.

En mayo de 2004 se incorporarán formalmente 10 nuevos Países a la Unión Europea, poniendo fin a siglos de conflicto y divisiones en nuestro Continente. Esta quinta ampliación es la más desafiante y estimuladora, ya que abre el espacio europeo a naciones de reciente incorporación a la democracia y de nivel económico inferior al que actualmente disfruta la UE.

El área geográfica de la Unión incrementará los actuales 375 millones de habitantes actuales en 75 millones, constituyendo la Europa ampliada el mayor bloque comercial del mundo.

Por otro lado, la ampliación exigirá una modificación en los fondos dedicados a la cohesión y el desarrollo regional, ya que la riqueza media de los aspirantes supone el 40% del PIB de los actuales miembros de la Unión.

En términos políticos, el proceso de toma de decisiones será más complejo en la Unión ampliada, incrementándose las dificultades para actuar con voz propia y autónoma en el mundo.

El trabajo deberá incorporar un análisis de los cambios que, previsiblemente, habrán de producirse con esta ampliación en los ámbitos cultural, económico, político y social, pudiendo los trabajos referirse a un solo tema o a varios de los mencionados.

### 5.- PLAZO DE PRESENTACIÓN

El plazo de presentación de los trabajos para acceder a la Convocatoria finalizará el día 31 de marzo de 2004 a las 12:00 horas.

### 6.- LUGAR DE PRESENTACIÓN

Los trabajos deberán presentarse o enviarse a la sede del Consejo Vasco del Movimiento Europeo:
Prado, 8, 1º dcha
01005 VITORIA-GASTEIZ

### 7.- JURADO Y FALLO:

El Jurado del Premio Francisco Javier de Landaburu, estará compuesto por los siguientes miembros:

- Presidente del EMEK/CVME
- Secretario General del EMEK/CVME
- 2 Miembros de la Junta Directiva del EMEK/CVME
- 1 Miembro de la Asamblea del EMEK/CVME
- 1 Representante del Gobierno Vasco
- 1 Profesor universitario relacionado con el tema del Premio
- 1 Representante del Parlamento Vasco

El Jurado hará público su fallo en mayo del 2004 . La convocatoria podrá declararse desierta, ya sea total o parcialmente.

Cualquier decisión del Jurado relativa a la adjudicación de los Premios y publicación, deberá venir avalada por la mayoría de sus miembros presentes. En caso de empate decidirá el voto de calidad del Presidente del Jurado, que será el Presiden del EMEK/CVME.

La entrega de los premios se realizará en el mes de mayo de 2004.

### 8.- DERECHOS DE EXPLOTACIÓN:

Los derechos de explotación correspondiente a los trabajos premiados se cederán con exclusividad y a título gratuito al Consejo Vasco del Movimiento Europeo, obligándose los premiados a otorgar el documento oportuno, cuando sea necesario, para la debida constancia pública de la cesión de los derechos de propiedad intelectual que se contempla en las presentes Bases y reservándose el Consejo Vasco del Movimiento Europeo el derecho a publicar dichos trabajos.

En todo caso, deberá hacerse constar el galardón obtenido bajo la siguiente forma en la publicación: "Premio Francisco Javier de Landaburu- 2004 del Consejo Vasco del Movimiento Europeo".

Los trabajos seleccionados para la publicación deberán otorgar mediante el documento oportuno y para la debida constancia pública, el derecho al Consejo Vasco del Movimiento Europeo, sin que ello suponga cesión de los derechos de propiedad intelectual.

### 9.- ACEPTACIÓN BASES:

La presentación de un trabajo a la presente convocatoria supone la aceptación plena por el interesado de las condiciones establecidas en las bases de esta convocatoria.

## FICHA DE INSCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS AL PREMIO FRANCISCO JAVIER LANDABURU 2004

### I. DATOS DEL PARTICIPANTE:

Apellidos ..................
Nombre ..................
Lugar de trabajo o estudios ..................
Departamento ..................
Dirección ..................
Municipio .................. Provincia .................. C.P. ..................
Teléfono .................. Fax .................. Email ..................

### II. DATOS DEL TRABAJO QUE SE PRESENTA:

Título ..................

### III. SOLICITA

Ser admitido en el Premio Francisco Javier Landaburu, para cuyos efectos acompaña cuanto exige en las bases de la convocatoria, aceptándolas en su totalidad.

**En .................. a, .................. de .................. de 200_**

**Firmado:**

EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO DEL MOVIMIENTO EUROPEO

# «FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU» Saria 2004



DEIALDIA EGITEN DUENA:
**EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUA**

PARTE-HARTZAILEAK:
**Ikerketa lanen egileak.**

GAIA:
**"Zabalkundeak dakartzan zalantzak: aukerak eta erronkak"**

HORNIKUNTZA:
**6.000 euro.**

AURKEZTEKO EPEA NOIZ BUKATZEN DEN:
**2004ko martxoaren 31n (12:00etan)**

ARGIBIDEAK:

**EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUA**
**Prado, 8 - 1. eskuina**
**01005 VITORIA/GASTEIZ**
**Telefonoa: 945 12 35 38 • Faxa: 945 12 35 39**
**Helbide elektronikoa: eurobask@eurobask.org**
**Webgunea: www.eurobask.org**


EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO DEL MOVIMIENTO EUROPEO

## «FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU» SARIA 2004

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren helburu nagusia da, batetik, bere baitan diren herrien aniztasuna errespetatuko duen Europar Batasun federala eratzea; eta, bestetik, Euskadin, Europako herrien, nazionalitateen eta eskualdeen arteko harremanak bultzatu eta sakontzea, europar batasun horren alde.

Dituen jarduera arloen artean, nabarmen ageri dira europar nortasuna sustatzea eta euskal gizartea europar eraikuntzan egiten diren aurrerapausoez ohartaraztea.

## DEIALDIA

Jarduera arlo horietan sakontzeko, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak 2001ean erabaki zuen, 50. urteurrena egin zuela eta, Ikerketa Saria sortzea, Francisco Javier Landaburu izenarekin. Hartara, 1951n sortutako Euskal Kontseiluaren lehenengo Zuzendaritza Batzordeko kide izandako gizon hura oroitarazi nahi dugu, europar gaien ikerlari eta intelektual nabarmena izan baitzen.

Sari hau, deialdiko unean Euskadiri gehien eragiten dioten europar eraikuntzako alderdiei buruzko azterketak eta gogoetak sustatzera zuzenduko da.

Deialdiak sari bat eta akzesit bat ditu, eta urtero egingo da.

## HELBURUAK

- Euskal gizartean, Euskadiri bereziki eragiten dioten gaur eguneko europar gaien inguruko gogoeta sustatzea.
- Europar gaiei buruz egiten diren lanen berri zabaltzea, ikerlariak europar eraikuntzaren alde lan egiten jarrai dezaten animatzeko asmoz.
- Euskal gizartean Europar Batasunaren etorkizunaren gaineko eztabaida bizirik mantentzea, kontinentean gertatzekoak diren aldakuntza handietarako prest izateko.
- Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren nortasunaren eta xedeen berri zabaltzea, eta dituen helburuak lortze aldera hobekien laguntzen duten ikerketak saritzea.

## OINARRIAK

### 1.- PARTE-HARTZAILEAK

Sarira aurkez daitezke bai gizabanakoak, bai horretarako eratutako lan taldeak. Lan taldeak izanez gero, ikerketa taldeko buru denari egiaztagiri egokiak eman behar zaizkio. Etorkizunean egiten diren deialdietan, ezin izango dute parte hartu ordu arteko ekitaldietan Francisco Javier Landaburu Saria lortu dutenek, ez eta Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluko Zuzendaritza Batzordeko kideek eta epaimahaiko kideek ere (ez banaka, ez lan talderen bateko kide gisa).

### 2.- LANAK

Azterketa eta ikerketa ikuspegietatik eginda dauden eta xedea europar gaiei zuzenean lotuta daukaten zientzia lanik onenek jasoko dituzte sariak.

Sariak lan hauei ematea proposatuko du epaimahaiak: kalitaterik handiena dutenei; planteamendu originalagatik nabarmentzen direnei; edo beren arloko ikerketa eremuan berrikuntza dakartenei.

Urtero, Kontseiluak oinarrietan zehaztuko du zein gai aurkez daitezkeen sarira.

Lanak argitaragabeak izan behar dira, eta euskaraz edo gaztelaniaz idatziak. Paperean (hiru kopia) eta euskarri informatikoan (kopia bat) aurkeztu behar dira.

Lanak gutxienez 50 orrialdekoak izan behar dira, eta 75ekoak gehienez. Betiere, lerro tarte bikoitzarekin eta 11 neurriko letra gorputzarekin idatzita aurkeztu behar dira. Lanaren bosten batek, gutxienez, landutako gaiaren etorkizuneko aurreikuspena egin beharko du.

Lanak ez dizkiegu egileei atzera emango, aurkeztean berariaz eskatu ezik.

### 3.- HORNIKUNTZA EKONOMIKOA ETA ARGITALPENA

Deialdi honetako lehen eta bigarren sariak, guztira, 6.000 euroko kopuruarekin hornitu dira, honela banatuta:

Lehen saria: 4.000 euro.
Bigarren saria: 2.000 euro.

Kopuru horiei indarrean dauden zerga arauen arabera dagozkien atxikipenak egingo zaizkie.

Argitalpena: epaimahaiak liburua egiteko oniritzia emango du, saritutako lanetakoren bat argitaratzeko modukoa dela irizten bada. Sarira aurkeztutako beste lan batzuk ere argitalpenean sartu ahal izango ditu epaimahaiak.

### 4.- GAIA: Zabalkundeak dakartzan zalantzak: aukerak eta erronkak

2004ko maiatzean, beste 10 herrialde sartuko dira formalki Europar Batasunean; hala, amaiera emango zaie mendeetan gure kontinentean izandako gatazkei eta banaketei. Bosgarren zabalkunde hori erronkatsuena eta kilikagarriena izango da, Europako espazioan barneratuko diren nazioak demokraziara sartu berriak baitira eta, gainera, EBk egun duen ekonomia maila baino baxuagoa baitute.

Batasunaren geografia eremuan, oraingo 375 milioi biztanleei beste 75 milioi gehituko zaizkie; hala, bada, Europa zabaldua munduko merkataritza bloke handiena bilakatuko da.

Bestetik, kohesioari eta eskualdeen garapenari bideratutako funtsak aldatzea eskatuko du zabalkundeak; izan ere, partaidegaien batez besteko aberastasuna Batasuneko egungo kideen BPGaren % 40 da.

Politikoki, erabakiak hartzeko prozesua konplexuagoa izango da Europar Batasun hedatuan, eta, ildo horretatik, bere kasa eta aske jarduteko zailtasunak areagotuko dira.

Lanari dagokionez, zabalkundeak ziurrenik ekarriko dituen aldaketa kultural, ekonomikoak, politikoak eta sozialak aztertu beharko ditu, eta horietako gai batean edo gehiagotan oinarritu ahal izango da.

### 5.- AURKEZTEKO EPEA

Deialdian sartzeko lanak aurkezteko epea 2004ko martxoaren 31n bukatuko da, 12:00etan.

### 6.- AURKEZTEKO TOKIA

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluan aurkeztu behar dira lanak, edo hara bidali. Helbidea:
Prado, 8 -1. eskuina
01005 VITORIA/GASTEIZ

### 7.- EPAIMAHAIAREN OSAKETA EBAZPENA

Epaimahaiak 2004ko maiatzean jakinaraziko du bere ebazpena jendaurrean. Deialdia hutsik utz daiteke, erabat edo zati batean.

Epaimahaiak sariari nahiz akzesitari buruz hartutako edozein erabaki, bertaratutako kideen gehiengoa horren alde agertuta hartu behar da. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuaren kalitate botoak erabakiko du.

Sari banaketa 2004ko maiatzean egingo da.

Francisco Javier de Landaburu Sariko epaimahaiak kide hauek izango ditu:

- Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat.
- EMEK/CVME-ko Presidentea.
- EMEK/CVME-ko Idazkari Nagusia.
- EMEK/CVMEko Zuzendaritza Batzordeko bi kide.
- EMEK/CVMEko Biltzarreko kide bat.
- Unibertsitateko irakasle bat, sariaren gaiarekin zerikusia duena.
- Eusko Legebiltzarraren ordezkari bat.

### 8.- USTIAPEN ESKUBIDEAK

Saritutako lanen ustiapen eskubideak, osorik eta doan, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluarenak izango ditu. Saridunek, hori horrela izan dadin, dokumentu egokia eman beharko dute, beharrezko denean. Hartara, publikoki jasota geratuko da oinarriotan adierazitako jabetza intelektualaren ematea gertatu dela. Horrenbestez, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak lan horiek argitaratzeko eskubidea izango du. Betiere, argitaratutako liburuan adierazi beharko da: «Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren Francisco Javier de Landaburu Saria, 2004».

Argitaratzeko aukeratu diren lanek -dokumentu egokiaren bidez eta publikoki horrela jasota gera dadin- Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluari eman beharko diote eskubidea. Horrek ez du esan nahi izango jabetza intelektualeko eskubideak eman direnik.

### 9.-OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetara lan bat aurkeztuz gero, horrek esan nahi du doakionak erabat onartzen dituela deialdi honetako oinarrietan ezarritako baldintzak.

EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO DEL MOVIMIENTO EUROPEO

**FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU 2004 SARIRAKO LANAK INSKRIBATZEKO FITXA**

**I. PARTE-HARTZAILEAREN DATUAK:**

Abizenak ......................................................
Izena ......................................................
Lantokia edo ikastetxea ......................................................
Saila ......................................................
Helbidea ......................................................
Udalerria ........................ Probintzia ........................ Posta kodea ........................
Telefonoa ........................ Faxa ........................ Helbide elektronikoa ........................

**II. AURKEZTEN DEN LANAREN DATUAK:**

Izenburua ......................................................

**III. ESKATZEN DUT**

Francisco Javier Landaburu Sarirako onar nazazuela. Horretarako, deialdiko oinarrietan eskatzen den guztia bidaltzen dut honekin batera, eta osorik onartzen ditut oinarri horiek.

..................n, 200__ko ..................ren ..................an

**Izenpetua:**